



**Ados zaude Sagardoetxearen
etorkizunerako proposamenarekin?**

*¿Estás de acuerdo con la propuesta
de futuro para Sagardoetxea?*

Bai Sí

Ez No

HERRI GALDEKETA

Eguna: Otsailak 6
Ordua: 9:00etatik 20:00etara.
Non: Erribera Kulturgunean

CONSULTA POPULAR

Día: 6 de febrero
Horario: De 9:00 a 20:00 horas.
Lugar: En el Centro Cultural Erribera.

**Eman zure
iritzia,
bozkatu!**

¡Opina, vota!



Astigarragako Udala

astigarraga.eus

Informazio gehiago:



Más información:



Sagardoetxea
herri baten erroak

Herri galdeketa

Consulta popular

Otsailak 6

6 de febrero

Erabaki
**Sagardoetxearen
etorkizuna**

*Sagardoetxearen norabidea erabakitzeko herritarrontzat
galdeketa-prozesua.*

El futuro de Sagardoetxea

*Proceso de consulta ciudadana para decidir el futuro
de Sagardoetxea.*



Hausnarketa-taldea eta talde eragilea

Grupo de Reflexión y Grupo Motor

Sagardoetxearen etorkizuna erabakitzeke herriari egiten zaion proposamen hau arrazoitua izan da.

Hausnarketa Taldeak lau hilabeteko lan-prozesu batetik eratorritako ondorioak jasotzen ditu.

Esta propuesta de futuro para Sagardoetxea ha sido elaborada y consensuada por un grupo de personas y organizaciones.

El Grupo de Reflexión recoge las conclusiones derivadas de un proceso de trabajo de cuatro meses.



HAUSNARKETA-TALDEA / GRUPO DE REFLEXIÓN: Astigar Elkarte, Astigarragako Udala, Astiko Elkarte, Baratz Elkarte, Bereziartua Sagardotegia, Gartziategi Sagardotegia, Goldea Elkarte, Herriar batzuk, Sagardun Partzuergoa, Zapiain Sagardotegia, Zipotza Elkarte, EAJ/ PNV alderdia, EH Bildu, Astigarragako Emakumeon Etxea, Astigarragako Gazte Asanblada

TALDE ERAGILEA / GRUPO MOTOR: Astigarragako Udala, Sagardun Partzuergoa, Elhuyar Aholkularitza

Hausnarketa-taldearen ondorioak

1. Sagardoetxea herriaren dinamikan errotua egotea, Astigarragaren identitatearekin bat eginez.

2. Sagarraren kultura sustatzeko askotariko ekarpen eta ekimenen bilgunea eta lankidetzarako eremua izatea.

3. Gaur egun Sagardoetxeak biltegian dituen pieza-etnografikoak erakusteko eta tresnak berritzeko lekua izatea: Erbitegi Etxeberri baserriko dolarea, kupelak egiteko Gartziategiko tresnak, matxakak, etab.

4. Dokumentazio Zentroari eskainitako gune bat egotea.

5. Gaur egungo sagastian aterpe bat eta azalpen didaktikoak jartzea.

6. Sagarraren eratorriekin produktuak egiteko gune bat izatea.

Conclusiones del grupo de reflexión.

1. Definir una Sagardoetxea enraizada en la dinámica del pueblo, en sintonía con la identidad de Astigarraga.

2. Ser punto de encuentro y de colaboración, para fomentar la cultura de la manzana y otras actividades e iniciativas.

3. Disponer de un espacio para la exposición y renovación de las piezas etnográficas que Sagardoetxea dispone actualmente en un almacén: el lagar del caserío Erbitegi Etxeberri, utensilios de Gartziategi para la fabricación de toneles, machacas, etc.

4. Existencia de un espacio dedicado al Centro de Documentación.

5. Instalar un espacio cubierto y explicaciones didácticas en el manzanal actual.

6. Disponer de un espacio para la elaboración de productos derivados de la manzana.

Bai

1 Sagardoetxearen proiektu berriak Astigarraga sagardogintzaren eta sagarraren kulturaren erdigunean jarriko du eta herri- eta eskualde-izaera eta -proiektzioa gaitutuko ditu.

2 Bertako ekonomia, merkataritza eta turismoa sustatuko ditu, eta askotariko bisitariak erakarriko ditu (bertako nahiz atzerriko bisitariak, ikastetxeak...).

3 Sagardoetxearen proiektua landuko da sagardogile eta sagarraren sektorearekin, beste administrazio publikoekin, herritarrekin eta eragileekin.


4 Egoitza berria Kontxa Etxeberria lorategiaren eta sagastiaren artean kokatuko da. Egoitza hori lurpean egingo da hein handi batean eta, beraz, lorategiak herritarrentzako berdegune eta aisialdirako eremu izaten jarraituko du. Sagardoetxe berriak ez du Kultur Etxe Zaharraren eraikina erabiliko.

El nuevo proyecto de Sagardoetxea situará Astigarraga en el centro de la cultura de la sidra y de la manzana, superando el carácter y la proyección local y comarcal.

Fomentará la economía y el comercio local, y el turismo, atrayendo a visitantes diversos (tanto nacionales como extranjeros, centros escolares, etc.).

El proyecto de Sagardoetxea se definirá con el sector de la sidra y la manzana, otras administraciones públicas, ciudadanía y agentes.

La nueva sede se ubicará en el entorno del jardín Kontxa Etxeberria y el manzanal. Esta sede se ubicará en gran medida en el subsuelo, por lo que el jardín seguirá siendo zona verde y de esparcimiento para la ciudadanía. La nueva Sagardoetxea no utilizará el edificio de la Antigua Casa de Cultura.



5 Sagardoetxe berriaren finantzaketan Astigarragako Udalak eta beste administrazioek parte hartuko dute. Sagardoetxe berriaren proiektuak ez ditu inola ere baldintzatuko eta ezerezean utziko bestelako udal-inbertsio eta -zerbitzuak.

En la financiación de la nueva Sagardoetxea participarán el Ayuntamiento de Astigarraga y otras administraciones. El proyecto de la nueva Sagardoetxea no condicionará en ningún caso la realización de otras inversiones y servicios municipales.

6 Sagardoetxe berriaren proiektua estrategikoa da Astigarragarentzat. Sagardoetxeak, sagardoaren kultura sustatuz eta hedatuz, gure ondarea balioan jarriko du.

El proyecto de la nueva Sagardoetxea es estratégico para Astigarraga. Sagardoetxea consolidará nuestro patrimonio a través de la divulgación de la cultura de la sidra.

Ez

1 Sagardoetxeak orain bezala, herri- eta eskualde-proiektzioa izango du eta sagardoaren kultura sustatzen lanean jarraituko du.

2 Proiektu berriak ekar ditzakeen bisitari-kopuruak herrian eragin negatibo batzuk izango ditu, turismoak berekin dakartzanak.

3 Oraingo egiturarekin jarraituko du lanean, herriko eragile, sagardogile eta Udalarekin lankidetzan.

4 Sagardoetxeak Kultur Etxe Zaharrean okupatzen duen espazioa nahikoa du. Dastaleku eta dendaren kaseta bertan mantenduko da. Beharren arabera, gerta liteke Kultur Etxe Zaharreko espazioaren bat Sagardoetxerako erabiltzea. Berdegunea eta lorategia bere horretan geratuko dira.

Sagardoetxea, como hasta ahora, tendrá una proyección local y comarcal y seguirá trabajando en la promoción de la cultura de la sidra.

El número de visitantes que puede aportar el nuevo proyecto tendrá una serie de impactos negativos en el municipio, asociados al turismo.

Continuará trabajando con la estructura actual, en colaboración con agentes locales, el sector de la sidra y el Ayuntamiento.

Sagardoetxea continuará utilizando el mismo espacio en la Antigua Casa de Cultura, donde se mantendrá la caseta para las degustaciones, y como tienda. Dependiendo de las necesidades, es posible que algún espacio de la Antigua Casa de Cultura sea utilizado para la Sagardoetxea. La zona verde se mantendrá tal y como está.

5 Finantziazioaren aldetik, orain bezalatsu jarraituko du, aparteko ahalegin ekonomikorik egin gabe. Ez da aparteko inbertsioak egiteko unea, ordainketa Udalak edo beste administrazio publiko batek eginda ere.

En cuanto a la financiación, seguirá siendo la misma que en la actualidad, sin realizar un esfuerzo económico adicional. No es momento para hacer este tipo de inversiones, ni por el Ayuntamiento ni por otras administraciones.

6 Sagardoetxe berriaren proiektua ez da estrategikoa Astigarragarentzat eta herriak baditu beste lehentasun batzuk.

El proyecto de la nueva Sagardoetxea no es estratégico para Astigarraga y el municipio tiene otras prioridades.